DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Idazkaritza nagusia
Secretaría general

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

## Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGAJn.

## Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek
## Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián

### Neuk ziurtatua:
### Certifico:

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2021eko Urriaren 26an egindako ohiko bilkuran, adierazpen hau onartzea erabaki du, aho batez, Bozeramaileen Batzordeak:

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 26 de octubre de 2021, aprobó, por unanimidad, la siguiente Declaración Institucional:

*"Gizartean eta parlamentuan eztabaidatzen urte asko eman ondoren, 2007ko abenduaren 26an, Memoria Historikoari buruzko 52/2007 Legea onartu zuten Gorte Nagusiek. Lege horri esker, gerra zibileko eta frankismoko biktimei egin zietena konpontzeari eta aintzatesteari buruzko etapa berri bat ireki zen, eta lan ildoak ezarri ziren biktimei onartutako eskubide berriak gauzatzeko, zauriak ixten eta herritarrak banatzen zuen zeinahi elementu ezabatzen laguntzeko.*

*"Tras muchos años de debate social y parlamentario, las Cortes Generales aprobaron la ley 52/2007, de 26 de Diciembre de la Memoria Histórica. Esta Ley permitió abrir una nueva etapa en relación a la reparación y al reconocimiento de las víctimas de la guerra civil y el franquismo , estableciendo las lineas de trabajo para hacer efectivos los nuevos derechos reconocidos a las vícitmas, al objeto de contribuir a cerrar heridas y eliminar cualquier elemento de división en la ciudadanía.*

*Memoria Historikoaren Legeko 3. artikuluaren arabera, arrazoi politiko edo ideologikoengatik edo sinesmen erlijiosoengatik kondena edo zehapen pertsonalak ezartzeko eratutako auzitegien, epaimahaien eta bestelako edozein zigor edo administrazio organoen legitimotasunik eza aitortzen da, baita horiek guztiek emandako ebazpenen legitimotasun eza ere.*

*El artículo 3 de la ley de Memoria Histórica declara la ilegitimidad de los tribunales, jurados u órganos de cualquier naturaleza administrativa creados con vulneración de las más elementales garantías del derecho a un proceso justo, así como la ilegitimidad de las sanciones y condenas de carácter personal impuestas por motivos políticos, ideológicos o de creencias religiosas, etc.*

*Nabarmenduta geratzen da, hala, (Memoria Historikoaren legeko zioen azalpenean adierazi bezala), giza eskubideen aurkako ebazpen eta xedapenek egun ez dutela indar juridikorik, zigor eta kondena zuzengabe horiek jasan zituztenak moral aldetik birgaitzen laguntzen ere duelarik.*

*En la misma exposición de motivos de esta ley de Memoria Histórica se subraya la carencia actual de vigencia jurídica de aquellas disposiciones y resoluciones contrarias a los derechos humanos y se contribuye a la rehabilitación moral de quienes sufrieron tan injustas sanciones y condenas.*

*II. Errepublika 1931ko apirilaren 14an heldu*

*El Advenimiento de la II República el 14 de*

10740n XVII

*zen hilaren 12an egindako udal hauteskundeetan oinarrituta, Espainiako udalerri guztiei ordezkaritza demokratiko batez ere aurrerakoi eta errepublikanoa eman zieten eta.*

*Abril de 1931 se fundamentó en unas elecciones municipales celebradas el día 12 y que dieron a todos los municipios españoles una representación democrática mayoritariamente progresista y republicana.*

*Hori izan zen Altzako Udalaren kasua, une hartan udalerria baitzen, ordezkari gehienak hautatu zituztelako hautagaitza errepublikanoen, independenteen eta nazionalisten artean, José Juanes abertzalea alkate izendatu zutelarik.*

*Tal fue el caso del Ayuntamiento de Altza, que en aquel momento era un municipio, que escogió mayoritariamente a sus representantes entre las candidaturas republicanas, independientes y nacionalistas vascas, siendo elegido Alcalde el nacionalista José Juanes.*

*1936ko uztailaren legezko gobernuaren aurka 1936ko uztailaren 18an militar batzuek estatu kolpea jo zutenean, Altzako Udala, alkatea buru zuela (une hartan, Pedro Ayesta independentea), Errepublikako Gobernuaren alde jarri zen. Horixe bera gertatu zen, halaber, garai hartan mugakide zuen Donostian, Fernando Sasiain errepublikanoa alkate zuela, Defentsa Batzordea antolatu baitzuen Donostialde osoan, erakunde demokratikoak defendatzeko.*

*Al producirse el golpe de estado militar del 18 de Julio de 1936 contra el gobierno legítimo de la República, el Ayuntamiento de Altza, con su Alcalde a la cabeza (en aquel momento el independiente Pedro Ayesta) se posicionó del lado del Gobierno de la República. Éste fue el caso también de la entonces vecina Donostia / San Sebastián que con el republicano Fernando Sasiain como Alcalde, organizó la Junta de Defensa en toda Donostialdea para defender las instituciones democráticas.*

*Jakina da indar erreakzionarioek, armadako jeneral kolpistekin batera, gerra zibil odoltsu bati ekin ziotela, uztailaren 18an porrot egin ondoren. Gerra horrek hiru urte luze iraun zuen.*

*Es sabido que las fuerzas reaccionarias junto con los generales golpistas del Ejército iniciaron tras su fracaso del 18 de Julio una sangrienta guerra civil que duró tres largos años.*

*San Martzial erori ondoren, Irun azkenik, irailaren 5ean, Nafarroako karlista kolpista eta boluntario mendean geratu zen. Ondorioz, kostaldeko bidea defentsarik gabe geratu zen, eta matxinatuek Altza hartu zuten 1936ko irailaren 13an.*

*Tras la caída de San Marcial, Irún sucumbió finalmente a los golpistas y voluntarios carlistas navarros el día 5 de Septiembre. Así el camino de la costa quedó sin defensa y los sublevados alcanzaron Altza el día 13 de Septiembre de 1936.*

*Handik 4 egunera, agintari militarrek kargutik kendu zuten Altzako Udal demokratikoa, eta haren ordez beste bat jarri zuten, kolpearen aldekoena. Alkate Victoriano Roteta izendatu zuten, eta Altzako Udalaren eta udalerriaren amaiera instituzionala hasi zen.*

*Tan sólo 4 días después el Ayuntamiento democrático de Altza fue cesado por las autoridades militares y sustituido por otro de adeptos al golpismo quedando nombrado Alcalde Victoriano Roteta, iniciándose el final institucional del Ayuntamiento y de la municipalidad de Altza.*

*Udal demokratikoa Bilbon berreratu zuten, Pablo Landa nazionalista buru zuela, eta han zeuden Altzako iheslari eta aterpetuei laguntzen jardun zuen, 1937ko ekainaren*

*El Ayuntamiento democrático se reconstituyó en Bilbao liderado por el nacionalista Pablo Landa y operó ayudando a los huidos y refugiados altzatarras que se encontraban allí*

*19an hiria erori zen arte.*

*hasta la caída de la ciudad el 19 de Junio de 1937.*

*Barrutiko Batzarrak konpromiso moral bat du bidegabeki zigortu zituzten edo arrazoi politiko eta ideologikoengatik jazarpena jasan zuten altzatar guztiekin, eta horiei, askatasuna defendatzeagatik, aitortza zor diegu.*

*La Junta de Distrito tiene un compromiso moral con todas las personas altzatarras que fueron injustamente sancionadas, o padecieron persecución por razones políticas e ideológicas y a las que debemos un reconcoimeinto por su defensa de la libertad.*

*Donostiako Udalean Hiriaren eta donostiarren Memoria Historikoari buruzko hainbat ekitaldi, adierazpen eta jarduera egin bezala, erakunde adierazpen honen bidez asmo eta interes berberak hedatzen eta handitzen ditugu, Altzako kargu publikoak eta herritarrak barne hartuta.*

*Del mismo modo que en el Ayuntamiento de San Sebastián se han ido realizando una serie de actos, declaraciones y actividades dedicadas a la Memoria Histórica de la Ciudad y sus habitantes, con la presente declaración institucional extendemos y ampliamos las mismas intenciones e intereses, incorporando a los cargos públicos y ciudadanía de Altza.*

*Horregatik guztiagatik, eta 1936 eta 1940 bitartean arrazoi politiko edo ideologikoek eragindako bidegabekeriak eta irainak jasan zituzten pertsona guztiei, betiko, egia, aitortza eta erreparazioa ohoratzeko eta berreskuratzeko, Barrutiko Batzarrak, egia, aitortza eta erreparazioa berreskuratzeko asmoz, hauxe ADIERAZTEN DU:*

*Por todo ello, y al objeto de honrar y recuperar la verdad, el reconocimiento y la reparación, para siempre y en reación a todas las personas que padecieron las injusticias y agravios producidos por motivos políticos o ideológicos en el periodo de septiembre de 1936-1940, el consejo del Distrito, con el objetivo de recuperar la verdad, el reconocimiento y la reparación MANIFIESTA que,*

*1. Altzatarren legezko ordezkari demokratikoek jokatu zuten papera aitortzen dugu eta Altzako zinegotzien ohorea berrezartzeko eskatzen, 1936ko irailaren 17an kolpistek bidegabeki kargutik kendu eta errepresaliatu zituztenez gero. Hona hemen:*

*1. Se reconoce el papel de los legítimos representantes democráticos de los altzatarras y se restituya el honor de los corporativos Altzatarra injustamente cesados y represaliados el 17 de Septiembre de 1936 por parte de los golpistas y que son los que siguen:*

*Pedro Ayesta (alkatea), Pablo Landa (zinegotzia), Felipe Zurutuza (zinegotzia), José Iruretagoyena (zinegotzia), José Casares (zinegotzia), José Juanes (zinegotzia), José Manuel Beretarbide (zinegotzia), José Manuel Sasiain (zinegotzia), Juan Iriarte (zinegotzia), Ricardo Tejada (zinegotzia), Gaspar Cardona (zinegotzia), eta Celestino Atorrasagasti (zinegotzia).*

*Pedro Ayesta (Alcalde), Pablo Landa (Concejal), Felipe Zurutuza (Concejal), José Iruretagoyena (Concejal), José Casares (Concejal), José Juanes (Concejal), José Manuel Beretarbide (Concejal), José Manuel Sasiain (Concejal), Juan Iriarte (Concejal), Ricardo Tejada (Concejal), Gaspar Cardona (Concejal) y Celestino Atorrasagasti (Concejal).*

*2. Era berean, geure egiten dugu azterlan bat egiteko konpromisoa, ikertu ondoren, 1936–1940 urteetan errepresaliatu eta jazarri zituzten Altzako pertsonak ezagutzeko aukera*

*2. Asimismo, se asume el compromiso de realizar un estudio que nos permita tras la investigación, conocer las personas de Altza que fueron represaliadas y perseguidas durante*

*emango baitigu, bai eta, era horretan, pertsona horiek ohoratzeko eta jasan zuten bidegabekeria jendaurrean aitortzeko ere".*==========================

*los años (1936 - 1940) para honrarles y reconocer publicamente la injusticia que padecieron".*
==============================

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2021eko azaroaren 3an.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 3 de noviembre de 2021.

**IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL**

**Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA**

**ALKATEAK O. E. -**
**V. º B. º DEL ALCALDE:**